



«Normalean mendizalearen hitzarekin aski dut»

Elizabeth Hawley ☒ Nepaleko mendi handietako notarioa

Mendian emakume boteretsuagorik ez dago. Nepaleko mendi handietako notarioa da, eminentzia bat: bere onarpenik gabe, gailur batek ez du baliorik. Espedizio guzti-guztiek pasa behar dute bere galdetegi zorrotza. Mendian inoiz egon ez bada ere, mendizaleek baino hobeki ezagutzen ditu gailur guztiak.

||| **Testuak eta argazkiak: Ramon Olasagasti**

Zorrotz eta zital fama ezarri diote mendizale askok eta egiaz, ez da, ez, batere kamutsa. Behar ere bai, langintza horretan. Aurki be-teko ditu 82 urte, baina tinko eusten dio bere lanari. Ohi duen bezala, ezpainak pixka bat margotuta, eskuko poltsarekin eta Volkswagen Beetle urdin zaharrean agertu da Thamel hotelean egindako hitzordura. Ohar moduan, 2002ko azaroaren hondarrean egindakoa da elkarrizketa, Katmandun bertan. Euskaldunon Egunkariako Mundumira gehigarrian ikusi behar zuen argia, baina...

Nola eta noiz hasi zinen lan honetan?

Nik Reuters albiste agentziarentzat egiten nuen Londresen. Reutersek pertsona bat behar zuen mendiko berriak jasotzeko eta neu bidali ninduten Katmandura, 1963an. 40 urte be-teko ditut, beraz, langintza horretan.

Hasiera zaila izan zen?

Aurreneko urte haietan oso espedizio gutxi izaten ziren eta Katmandun ere apurra ziren hotelak, hiru baino ez ni hasi nintzenez. Beraz, niretzat errazagoa zen mendiko espedizioekin biltzea eta informazioa jasotzea eta ematea. Gainera, zorte handikoa izan nintzen, britaniar mendizale bat, Nepaleko Gurkhen Armadan ibilitakoa, Katmandun bizi zelako. Oso abegikorra izan zen nirekin, eta mendiari buruzko ezaguera ugari eman zidan. Baita Nepaleko bizimodu eta hizkuntzari buruz ere.

Zein da zure lan metodologia? Espedizio guztiak aurrez eta ondoren biltzen zara?

Normalean, aurrez eta ondoren, bai. Hasteko eta behin, espedizioaren asmoak zein diren jakiten dut: zein mendi, zein bidetatik, taldekideak nor diren, euren argazkiak... Gero, menditik bueltakoan, berriro hartzen dut zerrenda eta taldekideek gose asko pasa duten begiratzen dut, ea asko aldatu diren... (barreak).

Eta orduan hasten da galdeketa?

Bai, euren hoteletara joaten naiz eta igoerari buruzko xehetasun inportantei buruz galde-tzen diet. Nolako izan den igoera, noiz igo diren, zer aurkitu duten gailurrean, zer ikusten zen gailurretik, beste espediziorik igo den eta abar. Igoera inportanteenei buruzko txosten eta informazio hori gero, aldizkari eta agerkari garrantzitsuenetara bidaltzen dut.

Mendizale batek gailurrera iritsi dela esatea, bere hitza, aski da zuk igoera onartzeko, ala frogaren bat ere aurkeztu behar dizu?

Egoeraren arabera da. Cho Oyun, adibidez, gailurretik zer ikusi duten galdetzen diet; izan ere Cho Oyuko gailurra oso-oso zapala da, kilometro askotan hedatzen den lautada bat eta itxuraz ez dago gailur jakinik. Esaten baditate ez zela lautada zapal hori besterik ikusten, orduan badakit ez direla punturik altuenean egon. Punta-puntatik Everest eta Lhotse eta beste hainbat mendi ikusten dira. Jende askok uste du Cho Oyu tontorrera iritsi dela, baina ez da puntu goren horretaraino heltzen. Normalean, gainera, halako mendietan talde asko izaten da, eta aurrez eta ondoren igo diren mendizaleei ere galdetzen diet: "Aizue, eta halako igo den badakizue? Haren arrastoak ikusi dituzue gailurrean?". Apurtxo bat eszeptikoa banaiz, baina pentsatzen dut mendizale jendea zintzoa dela, hitzekoa, eta normalean sinisten diet. Askizaten dut euren hitzarekin. Eurek ere askotan esaten didate haserre: "Ez duzu mendizale baten hitza sinisten?!".

Badira mendi nahasgarriak. Dhaulagiri adibidez, non jendeak uste duen gailur nagusira iritsi dela, atariko gailurrera baino igo ez denean. Halakoetan zer egiten duzu?

Juanitok adibidez, aurreneko ahaleginean ata-

rikaoa zapaldu zuen eta okerraz jabetuta bigarren saialdian lortu zuen gailur nagusia. Dhaulagirin galdera zehatzagoak egiten ditut gailurrari buruz: nolako den, zer ikusten den, ezkerrean edo eskuinean beste gailurrik ageri den eta abar.

Igoera baten inguruan bi bertsio daudenean: batek igo duela esaten duenean eta atzetik etorri den espedizio bateko kideek ezetz, ez dela igo diotenean, zer egiten duzu?

Bigarren talde horretako kideekin biltzen naiz berriro Katmandun baldin badaude oraindik, eta galdera gehiago egiten dizkiet, edo extera itzuliak badira, idatzi egiten diet galdera horiei erantzuteko. Hala saiatzen naiz egia iristen. Bazen talde frantziar bat ni engainatzen saiatu zena Cho Oyu gailurrera iritsi zela esanez. Atzetik etorri ziren britaniarrak ezetz zioten, frantziarrak ez zirela igo. Handik denbora batera, beste mendi batetik bueltan frantziar horietako bati galdetu nion Cho Oyu gailurrari buruz eta onartu zidan ez zirela igo. Babesleen presio handiak zituzten eta behartuak zeuden arrakasta izatera.

Benoit Chamouxen espedizioari buruz ari zara?

Bai, kezkatuta zegoen ez zutela babeslerik gehiago lortuko. Hori uste dut izan zela gezurra esateko arrazoia. Azkeneko aldiz Nepal en zian zenean Kangchenjungara zihoan. Katmandun elkartu nintzen berarekin eta ikusi nuen bere publizitatean "Azkeneko zortzimidakoa" jartzen zuela. Esan nion: "Tira, utz dezagun Cho Oyu alde batera, baina nola esan dezakezu 14. zortzimidakoa igotzera zoazela zuk zeuk onartu zenidanean Shisha Pangmako gailur nagusia ez zirela iritsi". Eta berak erantzun: "Ez, baina zortzimidakoa igotzeko gailur bat zapaldu nuen". Eta nik ostera: "Oso ondo, baina Everesteko Hego Gailurra zapalduen duen jendeak ez du esaten Everest zapaldu duenik". Orduan berak esan zuen itzuliko zela Shisha Pangma nagusia igotzera. Zoritxarrez, ez zen Kangchenjungatik gehiago itzuli. Beraz, gutxienez Cho Oyu eta Shisha Pangma ere falta zituen, nahiz eta mendizale bikaina izan.

Sentitu izan duzu inoiz mendizale bat gurettan ari zaizula?

Ez, ez nuke halakorik esango. Hala ere, mendizale batzuk ez dira nahikoa argiak eta orduan estutzen saiatzen naiz. Bazen mendizale holandarrak bat, Bart Vos, Everesteko tontorrera iritsi zela ziorena, baina egiaz Hego Tontorrera baino ez zen iritsi. Eskandalua, hala ere, Dhaulagiritik bueltan etorri zen. Gailurra zapaldu zuela esan zuen orduan ere. Gauz heldu omen zen tontorrera eta aurkeztu zituen argazkietan, bera ageri zen eta atzeko guztia ilun. Edonon ateratakoa izan zitekeen argazki

hura. Ez ninduen konbentzitu eta atzetik etorri ziren taldeek, errusiar espedizio bat tarteen, baieztatu zidaten ez zela igo. Pentsara iritsi zen albistea; kazetari alemaniar batek argitaratu zuen Bart Vos ez zela Dhaulagiri gailurrera iritsi eta hark kereila aurkeztu zuen kazetariaren aurka. Vosek galdu zuen. Nire iritziz, gizon horrek sinestu egiten zituen bere gezurrak ere. Kasu psikiatriko bat.

Badira beste kasu batzuk ere: Sergio Martini edo Fausto de Stefanirena Lhotsen, esaterako.

Ez da kasu bera. Hauek esan zuten Lhotsako gailurra igotzat jotzen zutela. Ez zekitela ziur punta-punta zen, ez zelako ezer ikusten, baina edozein modutan oso gertu zuela eta gailurra zela hura eurentzat. Zer da gertu? Hamar metro esan izan balidate, ondo, hori gailurra da, baina ez zekitela erantzun zidatena, beharbada 50-100 bat metro-ra geratu zirela. Beraz, hori ez da gailurra. Elkarriketa hori agertu nuen nik, besterik gabe gailurrera ez zirela iritsi esateko. Sergio Martini bigarren gorako Lhotsera bueltatu zenean, orduan bai, eguraldi argia izan zuten eta gailurreko argazki zoragarriak atera zituen. Bueltakoan esan zidan lehen aldiaren ere gailurra lortu zutela, bigarren aldi horretan ikusi zutela oso argi kasik gailurreraino iritsi zirela lehen aldiaren ere. Baina elkarriketa harekin nik ezin nuen frogatutzat eman.

Zuk Nepal en eta Xabier Eguskiza Kartajariari euskaldunak Karakorumen egiten duzulan lan eskergak behar beste ko aitortzarik baduela sentitzen zuzu?

Baietz uste dut, bestela zertan zaude zu hemen niri elkarriketa bat egiten. Bai, iruditzen zait mendiaren inguruko hainbat komunikabidek eta erakundek eskertzen dutela, nolabait, gure lana.

Zuen lanak izango du jarraipenik?

Ni ez naiz gaztea, ikus dezakezue. Noiz arte jarraituko dudan lan horrekin ezin dezaket esan, noski. Argialetxe nagusi samar bat badago nire oinarriko informazio guztia hartzeko prest. Datorren urtean izatea espero dut.

Zu lanean jardun zaren 40 urteotan, Himalayako espedizioen bilakaera zer izan da onerako ala txarrerako?

Biak. Orain talde txiki gehiago saiatzen da mendiak alpetar erara igotzen, arin, sherpa gutxiagorekin. Egun, gero eta gutxiago dira garai bateko armada estiloko espedizio haien antzekoak. Reinhold Messnerrek ekarri zuen aldaketa. Berak eta Peter Habelerrek Everest oxigenorik gabe igo zutenean, aldaketa itzela izan zen hori. Alpeetako eskalada modua Himalaya mendi handietara eraman zitekeela frogatu zuten, soka askorik finkatu gabe, oso modu arinean zailtasuneko bideak gaindi zitezkeela. Beste aldaketa handi bat espedizio komertzialak ekarri dute. Komertzialtasun hau arriskutsua ere izan liteke, prestatu gabeko jendea hurbiltzen baita mendiara. Espedizio horietako gidariak soilik mendia igotzeko benetan prestatuta dagoen jendea onartu beharko lukete, eskarmentu a duen jendea. Askok espedizio gehiago joaten dira gaur egun Everestera, altuena delako. Cho Oyu eta Ama Dablamera ere talde ugari joaten da, horiek dira mendirik komertzialekin. Everesteko fenomeno hori mendizale eta dela uste duzu?

Ez, ez dut uste. Zer da mendizalesuna? Niretzat lagun talde bat, aurrez elkar ezagutzen duen jendea, mendi bat igotzen saiatzea da mendizalesuna; sherpekin beharbada, edo sherparik gabe. Jende askok Everest tontorra zapaldu nahi du, besterik gabe. Kapritxo hori dauka. Ondo, antolatzaile onak daude horretan laguntzeko. Nire aholkua izaten da aurrez beste mendi txikiagorena batean saia daitezela, eta ondoren, euren burua gai ikusten badute, Everestera joan daitezela. Bostwanoko beltz bat etorri zitzaidan aurrekoan, Everest igotzen aurreneko beltza izan nahi zuela esanez. Datorren urtean da saiatzekoa. Hura behintzat, mendi gero eta altuagoetan ibilia zen eta bazuen eskarmentu nahikoa. Beste asko, altueran batera ibili gabe datoz Everestera.

Zortzimidako jarduerak aztertzen dituzu,

baina zer iruditzen zaizu mendi apalagoetan egiten ari diren jarduerak?

Oso interesgarria. Valery Babanov, adibidez eskalada oso onak egiten ari da. Esloveniako zenbait talde ere bai. Tomaz Humarek Dhaulagiriko hego horman egindakoa izugarria izan zen, baita aurrez, Everesteko hego aurpegian egin zuten ahalegina ere. Nuptseko mendealdeko aurpegian ere izan dira ahalegin edar batzuk... Aurpegi hori bazenik ere ez nekien lehen. Eta zazpimidakoetan bakarrik ez, seimimidako batzuetan ere ari dira eskalada oso politik egiten.

Espedizioen berri ematen dugunean, normalean mendealdeko mendizaleen izenak aipatzen ditugu eta sherpak ahaztu. Halakok, halakok eta hiru sherpak jo dute gailurra, jartzen dugu. Sherpei ez zaizela justiziarik egiten uste duzu?

Bai, egia da hori eta oker handia. Talde bat menditik bueltan datorrenean, esaten didate bi alemaniarrek, lau ingelesek, espainiar pare batek... zapaldu dute gailurra. Eta nik galdetzen diet: "Eta sherparik ez zen?". "Ah, bai, bai...". Egia da sherpei ez zaizela galdetzen. Arazoetako bat da sherpa askok izen bera dutela. Zenbat Mingma Dorje Sherpa edo Ang Dorje Sherpa ote daude Khumbungo bakarrik? Izugarri. Orduan oso zaila da zerrenda bat egitea. Bigarren abizenik ere ez dute bereizteko. Zein herriakok diren galdetzea izan liteke beste irtenbidea, Khumiungokoak, Lulkakoak, Nanchekoak... baina Solo Khumbutik kanpoko eskualdeetan ere badira izen horiekin sherpak eta horiek dira mendirik komertzialek ere ez da erraza, askok ez dakitelako ze edade duten. Ondorioz, zaila da zehaztasunez eramatea sherpen igoerak eta zerrendak. Gainerakoan, oso jende lagunkoia eta interesgarria da. Oso gogoan dut, adibidez, Tenzing Norgay. Nik uste bera izan zela eskalada benetan maite zuten aurreneko sherpa. Beretzat ez zen lana, zerbait gehiago zen. PerTemba Sherpa izan zen hurrengoa mendia beste modu batera ulertzen. Everesteko hego-mendealdeko horma igo zuten espedizio hartan zegoen. Babu Chiri ere oso mendizale indartsua zen, pertsona miresgarria. Everesten hil zen zorigaitoko istripu batean. Appa Sherpak ere berak nahi duela eskalatzu du, ez beharrez.

Zer dakizu euskal mendizalesunari buruz?

Oso mendizale onak daude Euskal Herrian. Juanito Oiarzabal, Alberto Iñurrategi eta bere anaia zena, Felix... Horiek ezagutzen ditut, batez ere. Asko etortzen zaretela badakit, askorekin egon naiz, eta badakit mendizalesunak indar handia duela han. Niri bereziki polita iruditzen zait beti Albertok eta Felixek egindako bidea.

Erretratuak

Edmund Hillary.

Oso ondo ezagutzen dut. Lan handia egiten ari da Himalayan Trust erakundearen bitartez. Eskolak, ospitaleak eta bestelako proiektuak sustengatzen ditu Solo Khumbu eskualdean. Pertsona miresgarria da. 26 eskola eta bi ospitale eraiki eta mantentzen ditu. Gaur egun, Hillaryren fundazioa lan handia egiten ari da bertoko jendea prestatzeko eskola eta erietxe horietan lan egin dezan. Inoiz ezagutu dudan pertsonarik handiena eta atsegina da, interesgarria, zintzoa, azkarra eta apala. Antolatzaile ona ere bada. Gizon handia.

Maurice Herzog.

Annapurna igo eta gero ezagutu dut nik. Artean ez nengoen Katmandun. Gizon xarmanta da, nahiz eta ez du dan hainbeste ezagutzen.

Chris Bonington.

Pertsona oso atsegina bera ere. Ez dut sekulako ahaztu

ko 1970an, Annapurnako hego aurpegiko espediziotik bueltan esan zidana. Gailurra lortu zuten baina taldeki de bat hil zitzaizen espedizio hartan. Chrisek esan zuen: "Sekulako gehiago ez mendi handi bat. Sekula gehiago ez espedizio handi bat". Gero, noski, ahaztu egiten dira halakook, eta bera ere bueltatu zen antzeko espedizioekin, Everesteko hego-mendealdeko hormara, besteak beste. Espedizio antolatzaile bikaina da bera ere. Bera ez da aurreneko muturrean edo gailurreko taldean egoteko zalea, beti pauso bat atzerago. Britaniar mendizalesunaren zatik pertsona oso inportantea izan da, giltzarria.

Jerzy Kukuczka.

Mendizale ikaragarria. Oso igoera zailak egin zituen, oso burugogorra ere bazelako. Manaslu hilabete osoa egon zen kanpaleku nagusian geldi, elurretan, eguraldiak noiz hobetuko. Europa mendealdeko edo AEBetako taldeek askoz lehenago alde egingo zuketenean.

Elkialdeko taldeek, eta Kukuczka inork baino gehiago, pazientzia handia dute. Arrazoia erraza da: beraiantzat oso zaila da dirua lortzea eta agian ez dute aukera gehiagorik izango itzultzeko; ondorioz, inork baino gehiago saiatzen dira. Katmandun hotelik merkeenetan egoten zen... Badakit pena handia hartu zuela Messnerrek hamalau zortzimidakoak berak baino lehen igo zituztenean.

Juanito Oiarzabal.

Mendizale ona dela esango nuke. Zoritxarrez ez du bere ingelesea askorik hobetu urteotan, eta, ondorioz, beste norbaitek izaten du elkarriketaren pisua.

Alberto Iñurrategi. Iñurrategi anaia.

Alpinista bikaina. Annapurna eginako igoera oso zaila izan zen. Bazuten gaitasuna bide teknikoagotatik jateko ere, baina lehen esan bezala, egin duten bidea polita izan da.